

**2012KO ZEMENDIAREN 22AN EGINDAKO PREMIAZKO APARTEKO OSOKO  
BILKURA**

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2012ko zemendiaren 22an, arratsaldeko 07:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- GORKA RENTERIA GARAI
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- AMETS JAUREGUIZAR BARAYAZARRA
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren aparteko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

**1.- UDALBATZAREN ERABAGIA BILKURAREN PREMINA DALA-ETA.**

Aitor Apraiz alkateak adierazo dau batzar hau egitea premiazkoa dala ikusirik datorren domekan, zemendiaren 25ean, emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazinoarteko eguna dala. Ganera, kontuan hartuta, gai horrerri buruz, batetik, EAJ/PNV udal taldeak urriaren 24ko udalbatzan aurkeztutako mozinoa ez zala onartu, eta, bestetik, BILDU/BAKIO udal taldeak zemendiaren 16an aurkeztutako mozinoa, gaur bertan udalbatzarra egiteko eskatuz.

EAJ/PNV eta BILDU/BAKIO zinegotzien aldeko botoagaz (11 zinegotzi guztira), Bakioko Udalaren Osoko Bilkurak gaurko batzarraren premiazkotasuna aho batez onartu dau.

**2.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA  
EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO  
EGUNA DALA-ETA:**

**A) BILDU/BAKIO UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO TESTUA ONARTU,  
HALA BEHAR BALITZ.**

**B) EAJ/PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO TESTUA ONARTU,  
HALA BEHAR BALITZ.**

A) BILDU/BAKIO udal taldeak aurkeztutako testua:

Lehenengo eta behin, Felix Jauregizar zinegotziak, BIL/BAKIO udal taldeak aurkeztutako testua irakurtzeari ekin deustso, edukia hauxe izanik:



**AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA  
EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**

Beste urte batez, Emakumeen kontrako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, Bakioko Udalak biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

2012a hasi zenetik 5 emakume erail dituzte Euskal Herrian eta milaka dira komunikabideen bitartez jasotzen ditugun kasuen berri. Eraso sexisten inguruko gertakariak eta salaketak egunero entzun ohi ditugun elementuak dira. Herriko jaietan edota jai eremuetan emakumeon askatasuna baldintzatu eta eraso sexisten areagotzea ematen da. Lan eremuan ematen diren sexu jazarpeneri datuak kezkatzekoak dira. Gazteriaren artean sexuen arteko botere harremanak eta balore patriarkalak iraunarazteaz gain, mutil askok nesken kontrako indarkeria ere baliatzen dute...

Emakumeen aurkako biolentziak, izaera fisikoa, sexuala edo psikologikotik haratago, ekonomiko eta sozial izaera ere ba du. Horregatik Udal gisa emakumeen aurkako biolentziaren aurrean dugun jarraera, bikote edo bikote ohi eremuan ematen den biolentziatik haratagokoa izango da.

Aurten gainera, 2012an, ezin dugu beste alde batera begiratu, hainbeste eskubide kentzen diren garai honetan, eta horregaitik:

- Bikote edo bikote ohi eremuan ematen diren etengabeko tratu txar fisiko eta psikologiko adierazpenak **SALATZEN DITUGU**. Emakume izate hutsagatik kolpe, paliza eta heriotzak gertatzea onartezina iruditzen zaigu.
- Hainbat ordezkari politiko, agente sozial, judizial eta komunikabideren aldetik egindako adierazpenak **SALATZEN DITUGU**, emakumeak herritar tutelatu gisa eta norbere bizitzaz erabakitzeke ahalmenik gabe kokatzen direlako.
- Krisian baitan, zerbitzu publikoen murrizketek -bereziki zaintzari dagozkionak-, biolentzia arriskua handitu dezaketen vulnerabilitate egoerak sortzen dituztela **SALATZEN DUGU**. Obedientzia eta sumisioan oinarritutako harremanetan hain zuzen ere.



Hori guztiagatik, Udal honek, ekitatea eta emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna oinarri izango dituen beste eredu sozial baten eraikuntzan aurrera egiteko konpromisoa hartzen du. Emakumeenganako biolentzia bukatzeko bide bakarra izanik eta bide honetan mugimendu feministari entzun eta berarekin parte hartuz, norabide honetan egindako ibilbideagatik eta helburu hori lortzeko duen lidergo historikoagatik.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

- KONPROMISOA HARTZEN DU indarkeria aurre egiteko politika integralari dagokionez, mota desberdinetako neurriak hartu beharko ditugu kontutan, besteak beste heziketan oinarritutako prebentzio neurriak, eraso baten ondorengo neurri asistentzialak edota erantzun soziala artikulatzeari begirakoak.
- KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, osoa eta koordinatua garatzeko, hitzetik ekintzetara pasatuz. Eta horregaitan aurrekontuetan mantendu egingo ditugu indarkeria jasandako emakumeentzako programetarako partidak.
- KONPROMISOA HARTZEN DU, autodefentsa feministaren beharra transmititu eta emakumeak animatu lanketa berezia egin dezaten eta bitartekoak jarri

GONBITEA EGITEN DIE herritar guztiei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, herri edo eskualde mailan antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko.

Bakion, 2012ko azaroan

Ostean, alkateak bozkatzeko agindu eta horren emoitza hauxe izan da:

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaeche zinegotziek testuaren aldeko botoa emon dabe.

EAJ/BAKIO taldeko Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziek, barriz, aurkako botoa emon dabe.

Ondorioz, testuaren aldeko 5 boto eta kontrako 6 boto zenbatu diran ezkerre, Bakioko Udalbatzak ez dau agiri hori onartu.

B) EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako testua:

Aitor Apraiz alkateak, EAJ/PNV udal taldeak aurkeztutako mozinoa irakurri dau, edukia hauxe izanik:

*“EUSKADIKO UDALERRIEN ADIERAZPEN INSTITUTIZIONALAREN ERDUA,  
AZAROAREN 25a DELA-ETA*

*“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”*

*Azaroaren 25a dela-eta, hau da, Nazio Batuen Batzar Nagusiak “Emakumeenganako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna” aitortutako eguna dela-eta, Bakioko udalak indarkeria matxistaren aurkako gaitzespena agertu du. Emakumeenganako indarkeriaren kontrako edozein adierazpen gaitzesten dugu, dimentsio orotan (fisikoa, psikologikoa, sexuala, sinbolikoa...), bai eta sexismo mota oro ere, arinenak eta normalizatuenak barne, esaterako: sexuaren araberrako rol estereotipatuak; neska eta emakumeen ikusezintasuna bizitzako hainbat arlotan, bigarren mailara zokoratuz; sexu eta ugalketa eskubideen ezeztapena; edota pertsonetikiko diskriminazioa euren sexu-aukeraren edo genero identitatearen ondorioz.*

*Belaunaldi gazteagoen artean emakume nahiz gizonen arteko desberdintasunak eta emakumeenganako indarkeria gailenduta daudelako mitoa baino harago, errealitateak erakusten digu gazteen artean dagoen indarkeria matxista, baita adinez txikikoen artekoa ere, benetan kezagarria dela.*

*Horrenbestez, ezinbestekoa da ulertzea ezin daitekeela emakumeenganako indarkeriaren kontra borroka egin, gizonetzkoen eta emakumezkoen ereduak sakon eraldatu gabe, ez eta gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko harreman afektibo eta sexualak eraikitzeke modua aldatu gabe ere. Horregatik, tokiko gobernuok konpromiso aktiboa izan behar dugu udalerriko gazteekin lan egin eta indarkeria matxista prebenitzeko, ahalegina eginez eta beharrezkoak diren baliabideak eskainiz. Hori horrela, errespetuan, askatasunean, autonomian eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzen lagunduko diegu gazteei.*

*Prebentzioko prozesu honek erreferentziazko eredu berriak sortzea ahalbidetzen du, hain zuzen ere, mutilek eta gizonen pribilegiozko jarrerarik eduki ez dezaten nesken eta emakumeen aldean, izan ere, indarkeria matxistaren jatorria emakumeen menpekotasuna eta diskriminazioa betikotzen duen botere-harremanean dago. Beldur Barik programan Euskadiko udalek hartzen dute parte, eta helburua da sexismotik aldentzen diren neska-mutikoen jarrera positibo eta egunerokoak antzeman eta ikusaraztea, izan ere, jarrera horiek rol tradizionalekin hautsi eta gizarte berdintsuagoa eraikitzea dute xede.*

*Erakundeetatik eta, erakunde hurbilenetik, udaletik, indarkeria matxistaren kontrako ardura soziala eta politikoa gure gain hartu behar dugu, eta, horretarako, norberaren aurreiritziak, rolak eta eguneroko jarrerak berrikusi beharko ditugu. Norberak erantzukizun horiek bere gain hartuz gero, aldaketarako konpromisoa lortuko da.*

*Bakioko Udala*

*Beldur Barik programaren edukiekin bat dator, gazteak indarkeria matxistaren gainean sentsibilizatu eta hura prebenitzeko moduak lantzeko tresna gisa.*

*Herritarrei gonbit egiten die konpromiso pertsonalak eta kolektiboak hartzeko, emakumeen eta gizonezkoen arteko berdintasunaren alde, baita edozein indarkeria edo diskriminazio sexista gaitzesteko ere.*

*Gonbit egiten die herritar guztiei, eta bereziki neska-mutilei, azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.”*

Ostean, alkateak bozkatzeko agindu eta horren emoitza hauxe izan da:

EAJ/BAKIO taldeko Aitor Apraiz, Paloma de Epalza, Floren Zabala, Gorka Renteria, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotziek, barriz, testuaren aldeko botoa emon dabe.

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Alberto Bilbao, Amets Jauregizar, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaache zinegotziek abstenidu egin dira.

Ondorioz, testuaren aldeko 6 boto eta 5 abstentzino zenbatu diran ezkerreko, Bakioko Udalbatzak agiri hori onartu egin dau.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagitzeko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:20an emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria